“ALKATETZAREN DEKRETUA

Eibarko hirigintza plangintzako aholku batzordeak, udalbatzak 2009ko ekainaren 29ko bilkuran behin betikoz onetsi zuen Erregelamenduaren araberako funtzionamendua du; erregelamendu hori urte hartako uztailaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Erregelamenduaren 6. artikuluak ezartzen duenez, zinegotzi izateagatik bokal diren ordezkariek euren kargua utziko dute Udalbatzaren agintaldia amaitzen denean; beraz, Aholku batzordearen osaketa aldatu egiten da Udalbatza berria sartzen denean.

Joan zen maiatzaren 22an izan zirenez udal hauteskundeak aholku batzordea aldatu egin behar dira; aldatu egin behar dira, bai alkatea eta baita hirigintzako zinegotzia, bai udalean ordezkaritza duten alderdi politikoko ordezkariak nola udalean ordezkaritzarik ez duten alderdi politikoen ordezkariak ere; eta azken horiek, egin diren azken hiru udal hauteskunde horietako batean aurkeztutakoak behar dute izan. Alderdi politiko guztiei eskatu zaie batzordean izango dituzten kideen izenak ematea, eta denek eman dituzte euren ordezkarien izenak Hamaikabat (H1) alderdiak izan ezik.

“DECRETO DE ALCALDIA:

El consejo asesor de planeamiento urbanístico de Eibar regula su funcionamiento por el Reglamento aprobado definitivamente por el Pleno municipal el 29 de junio de 2009 y está publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 10 de julio de ese año.

El artículo 6 del Reglamento establece que los vocales que lo sean por ostentar la condición de concejales cesarán cuando expire el mandato de la Corporación Municipal renovándose la composición del consejo asesor de acuerdo a la nueva composición de la Corporación.

El pasado 22 de mayo se celebraron elecciones municipales por lo que procede renovar la composición del consejo asesor tanto en lo referido al Alcalde/sa y concejal/a delegado/a del Área de Urbanismo, como a los representantes de los partidos políticos con representación municipal, como en lo referente a los representantes de los partidos políticos sin representación municipal, pero que cumplan con el requisito de haberse presentado a alguna de las tres últimas elecciones municipales. Una vez requeridos los diversos partidos políticos todos han comunicado la identidad de sus

representantes excepto el partido Hamaikabat (H1).

Legeak ematen dizkidan ahalmenez baliatuta, EBAZPEN HAU EMATEN DUT:

Por ello en uso de las facultades legalmente conferidas, RESUELVO:

AURRENA.- Maiatzaren 22ko udal hauteskundeen ostean udal gobernu taldearen eraketa nolakoa den ikusita, 6.1.a) eta b)a atalen arabera, ondoko hauek izendatzea batzordekide:
Batzordeburua: Miguel de los Toyos Nazabal
Buruordea: Eneko Andueza Lorenzo.

PRIMERO.- Vista la composición del equipo de gobierno municipal tras las elecciones del 22 de mayo confirmar como miembros del consejo por los apartados 6.1 a) y b) a:
Presidente: Miguel de los Toyos Nazabal.
Vicepresidente: Eneko Andueza Lorenzo

Hutsik geratzen da 6.1.e) atalean Ingurumen Saileko zinegotzi ordezkariarentzat gordetako lekua.

Queda vacante el puesto reservado en el apartado 6.1 e) al Concejal delegado del Área de Medio Ambiente.

BIGARRENA.- Plangintzako Aholku Batzordean parte har dezaten, ondoko alderdi hauek eta euren ordezkariak onartzea Udal Erregelamenduko 6. artikuluko c) eta d) esparruetakoak.

SEGUNDO.- Admitir la siguiente relación de partidos y sus representantes para la participación en el Consejo Asesor del Planeamiento Municipal por el ámbito correspondiente del artículo 6º) apartados c) y d) del Reglamento Municipal:

c) Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko bakoitzetik ordezkari bana:

- Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra.
- Bildu (EA-ALTERNATIBA).
- Euzko Alderdi Jeltzalea.
- Partido Popular.

c) Un representante por cada uno de los partidos políticos con representación municipal:

- Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra
- Bildu (EA-ALTERNATIBA)
- Euzko Alderdi Jeltzalea
- Partido Popular

d) Udal ordezkapenik ez duen eta egin diren azken hiru udal hauteskunde horietako batean aurkeztu ziren alderdi politiko haietatik, ordezkari bana:

- Ezker Batua
- Aralar

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri udal osoko bilkurari ematea eta udal ediktuen oholean eta Eibarko udalaren webgunean kaleratzea (www.eibar.net); izendatu direnei, eta Aholku Batzordea osatzen duten gainerako eragile, elkarte eta entitate guztiei, banan bana jakinaraziko zaie hemen esandakoa.

Eibarren, 2011ko irailaren 20an

ALKATEAK,
Miguel de los Toyos Nazabal."

d) Un representante de los partidos políticos sin representación municipal, que se hayan presentado a alguna de las tres últimas elecciones municipales:

- Ezker Batua
- Aralar

TERCERO.- Dar cuenta al Pleno de la presente resolución y publicar la misma en el tablón de edictos y en la página web del Ayuntamiento de Eibar (w.w.w.eibar.net), y notificar personalmente a los nombrados y a los agentes, asociaciones y entidades que componen el Consejo.

Eibar, 20 de septiembre de 2011

EL ALCALDE,
Miguel de los Toyos Nazabal."

PP taldeak aurkeztu duen MOZIOA, ETA banda terrorista gaitzesteko proposamena eginez.

MOCIÓN presentada por el Grupo PP de propuesta de condena de la banda terrorista ETA.

“Arrazoiak.

Korporazio berri baten ibilbideari ekin berri diogun honetan, gure iritziz, funtsezkoa da terrorismoa gaitzestea, herritarrei izua eta ETAren biktimei samina baino ekarri ez diena. Planteamendu etiko horretatik bakarrik eraiki ahal izango dugu bakean eta askatasunean bizi ahal izateko nahita nahiezekoa den egiazko kontaketa historikoa.

Terrorismoak izan litekeen akabera bakarra ETA garaitzea baino ez da, izan ere, banda ez bada inongo baldintza barik desegiten eta haren nahi politikoak ez badira bazterrerazten, baliabide eta helburu antidemokratiko batzuei legitimitatea emango litzaieke, belaunaldi euskaldun berrien artean baliabide eta helburu horiek onargarritzat har ditzaketenei arrazoiak edo argudioak emanez; horrela balitz, biolentziaren ernamuina lokartuta geratuko litzateke gizartearen magalean.

Orainaldi bat eta etorkizun bat bakean eta askatasunarekin izango dela bermatzeko, ETAren historiari legitimitatea kendu behar zaio, biolentziaren justifikazioa zalantzan ipintzea oinarrizko ardatz sendo eta

“Justificación

Ahora que acabamos de iniciar la andadura de una nueva Corporación, consideramos fundamental la condena del terrorismo, que sólo ha traído terror a la ciudadanía y dolor a las víctimas de ETA. Sólo desde este planteamiento ético podremos construir el verdadero relato histórico que es imprescindible para poder vivir en paz y en libertad.

El único final posible del terrorismo es sólo la derrota de ETA, porque cualquier escenario que no suponga la disolución incondicional de la banda y el rechazo a sus pretensiones políticas sería dar legitimidad a unos medios y fines antidemocráticos y dar argumentos a quienes podrían interpretarlos como aceptables entre las nuevas generaciones de vascos, quedando latente el germen de la violencia en el seno de la sociedad.

Para garantizar un presente y un futuro en paz y con libertad se requiere la deslegitimación de la historia de ETA, porque cuestionar la justificación de la violencia es dotarnos de cimientos

demokratikoez baliatzea delako gizartean elkarrekin bizi ahal izateko.

Bakea askatasunarekin batera behin betiko zimendatu ahal izateko demokrazia goratu behar da, eta elkarbizitza-esparruak kolokan jartzetik eta pertsonen oinarrizko eskubideak zapaltzetik etekina atera nahi duten guztiek eduki dezaketen itxaropen izpirik txikiena ere galarazi egin behar zaie.

Udal honen eskuetan dago bakean eta askatasunean elkarrekin bizi ahal izateko zutabeak ipintzea, ETAren izua gaitzetsiz eta demokrazia legitimatuz.

MOZIOA

Eibarko Udalak, osoko bilkuran,

1.- Berariaz gaitzesten ditu ETA banda terroristak egin dituen 857 erailketa horiek guztiak bat bedera ahazteke.

2.- Arbuiatu egiten du ETAk bere mendean hartu izan dituen euskal hiritarrek eta Espainiako hiritar orok pairatu duten izu eta samin historia justifikaezina, eta bereziki terrorismoaren biktimei eragin diena.

ETA desegitea eskatzen du, inongo baldintzarik gabe, armak entregatzea eta bandako kideak Justiziaren esku ipintzea."

democráticos básicos y sólidos para poder convivir en sociedad.

Para asentar definitivamente la paz con libertad se requiere prestigiar la democracia y hacer perder toda esperanza a quienes pretenden obtener réditos de la desestabilización de los marcos de convivencia y de la conculcación de los derechos básicos de las personas.

Es competencia de este ayuntamiento poner los pilares de una convivencia en paz y en libertad, condenando el terror de ETA y legitimando la democracia.

MOCION

El Ayuntamiento de Eibar en Pleno

1.- Condena de manera expresa todos y cada uno de los 857 asesinatos perpetrados por la banda terrorista ETA.

2.- Reprueba la injustificable historia de terror y dolor a la que ETA ha sometido a la ciudadanía vasca y el conjunto de la española en general, y a las víctimas del terrorismo en particular.

Exige la disolución incondicional de ETA, la entrega de las armas y la puesta a disposición de la justicia de los

miembros de la banda.”

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztu duten MOZIOA

“BAKEAREN ALDE ETA TERRORISMOAREN KONTRAKO MOZIOA.

Foru eta Udal hauteskundeen ondoren, Udalak eta Batzar Nagusiak eratu zirenez, beharrezkoa da, beste behin ere, Euskadiko indar politikoek hartutako konpromisoak erakundeetan berrestea, Euskal Erakundeetan 2010eko azaroaren 10ean izan zen Memoriaren Egunean hartutako erabakiak hain zuzen ere:

Beharrezkoa da baita ETAren amaiera exijitzea eta gure herrian izan diren ekintza terrorista guztiak gaitzestea terrorismoa behin betikoz amaitu dadin eta horrela bakea, askatasuna eta elkarbizitza finkatu daitezen.

Horregatik, proposamen hau egiten dugu:

1.Printzipio hauei emandako onespena berrestea:

1.1 Euskal herritarrok bakean eta askatasunean bizitzeko eskubidea dugu, totalitarismoaren, indarkeriaren eta bazterkeriaren mehatxurik gabe. Euskal gizartearen eta berau ordezkatzen duten erakundeen lehenengo helburua

MOCIÓN presentada por EAJ-PNV y PSE-EE

“MOCION SOBRE PAZ Y RECHAZO TERRORISMO

Constituidas las Corporaciones Locales y las Juntas Generales después de las elecciones municipales y forales, resulta necesario, una vez más, reafirmar en las instituciones los compromisos adquiridos por las fuerzas políticas de Euskadi, por acuerdo en las diversas instituciones vascas, el Día de la Memoria, celebrado el 10 de Noviembre de 2010.

Es necesario, igualmente, reclamar la disolución de ETA y condenar todos los actos terroristas que se han producido en nuestro país para conseguir que se acabe definitivamente el terrorismo y consolidar, así, la paz, la libertad y la convivencia.

Por todo ello proponemos:

1.- Ratificar la aprobación de los siguientes principios:

1.1 Los ciudadanos y las ciudadanas vascas tenemos derecho a convivir en paz y en libertad sin la amenaza del totalitarismo, de la violencia y de la exclusión. El final de terrorismo y la consecución de la paz es un objetivo

terrorismoa amaitzea eta bakea lortzea da.

.1.2 Euskal gizartea eta bere erakundeak tematuta gaude terrorismoaren biktimen oroimena erreferentzia bihurtzen: askatasunean, tolerantzian, justizian eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen den etorkizun baketsu baten erreferentzia.

1.3 Oroimena ez da soilik terrorismoaren indarkeria jasan duten pertsonen funtsezko eskubidea. . Gertatutakoaren kontaketa partekatu eta benetakoa eraikitzen lagunduko digun funtsezko argudioa da, biktimaren ikuspegitik, non indarkeriak eta honen justifikazioak behin betiko baztertuta geratzen diren eta biktimak betirako aintzat hartuak diren, gizalegezko adiskidetasunezko garai berri batean.

1.4 Memoriak izenak eta datak jartzen ditu terrorismoak ezinezko aitzakiak eta justifikazioak jartzen dituen lekuetan. Memoriak bidegabeko sufrimenduaren akta egiten du, eta zigorgabetasunarekiko tolerantzia oro eragozten du. Oroimenak, azken batean, behartutako ahanzturaren edo ahanztura interesatuaren lilura tentatzailearen aurrean prebenitzen ditu herritarrak.

1.5 Gaur, terrorismoaren biktima guztiak gogorarazten ditugu, salbuespenik gabe. ETAren izuaren biktimak, euskaldunen arteko elkarbizitza oraindik ere mehatxatzen duen talde terrorista bakarraren biktimak, eta GALek, Batallón

prioritario de la sociedad vasca y de las instituciones que la representan.

1.2 La sociedad vasca y sus instituciones estamos empeñados en convertir la memoria de las víctimas del terrorismo en el referente de un futuro en paz, basado en la libertad, la tolerancia, la justicia y el respeto al pluralismo.

1.3 La memoria no sólo constituye un derecho fundamental de las personas que han sufrido la violencia terrorista. Es un argumento primordial que contribuirá a construir un relato compartido y genuino de lo ocurrido, a través de la mirada de la víctima, en el que la violencia y sus justificaciones queden definitivamente desterradas y sus víctimas reconocidas para siempre en un nuevo tiempo de concordia cívica.

1.4 La memoria pone nombres y fechas allí donde el terrorismo pone excusas y justificaciones imposibles. La memoria levanta acta del sufrimiento injusto e impide ningún tipo de tolerancia con la impunidad. La memoria, en fin, previene a la ciudadanía frente a la tentadora seducción del olvido forzado o interesado.

1.5 Recordamos hoy a todas las víctimas del terrorismo, sin excepción. A las víctimas del terror de ETA, el único grupo terrorista que todavía hoy amenaza la convivencia entre los vascos y a las víctimas provocadas por

Vasco Españolek nahiz indarkeria zerabilten beste talde batzuek eragindako biktimak ere, nahiz eta talde horiek iraganekoak izan, onarpen eta ordain bera merezi dituen sufrimendua eragin zutelako.

1.6 Oroimena zaintzea da gurekin ez daudenen alde eta terrorismoaren biktima guztien sufrimenduaren alde eskain dezakegun zerbitzurik onena. Guztiengan pentsatuz, orainean, baina batez ere, etorkizunean, biktima guztien memoria gordetzeak lagunduko duelako askatasunezko etorkizun baketsua lortzen, non guztion artean elkarbizitza on bat garatu ahal izango dugun.

la violencia criminal del GAL, del Batallón Vasco Español y de otros grupos violentos que, si bien hoy son pasado, originaron un sufrimiento que merece también reconocimiento y reparación.

1.6 La preservación de la memoria es el mejor servicio que podemos prestar por los que no están con nosotros y, también por el sufrimiento del conjunto de las víctimas del terrorismo. Pensando en todos, en el presente, pero, sobre todo, pensando en el porvenir, porque guardar la memoria de todas las víctimas contribuirá al logro de un futuro en paz y libertad, en el que podamos desarrollar una sana convivencia entre todos.

2. Eibarko Udalak konpromisoa hartzen du helburu politikoak lortzeko ekintza politikorako tresna edo metodo gisa indarkeria erabiltzearen arbuioarekin, haren jatorria edo izaera dena delakoa ere. Arbuio horrek, irekia eta itzulingururik gabea izanik, egun iragana diren erakunde terrorista guztiak – Triple A, Batallón Vasco Español- hartzen ditu, eta baita ETA ere, tamalez oraindik oraina dena, pertsonen oinarrizko eskubide eta askatasunak urratzen dituzten jokaeren subjektu aktiboak baitira.

2. El Ayuntamiento de Eibar se compromete con el rechazo de la violencia como instrumento de acción política o método para el logro de objetivos políticos, cualquiera que sea su origen y naturaleza. Este rechazo, abiertamente y sin ambages, incluye todas las organizaciones terroristas – Triple A, Gal, Batallón Vasco Español- que hoy son del pasado, y también a ETA, desgraciadamente aún presente, en cuanto sujetos activos de conductas que vulneran derechos y libertades fundamentales de las personas.

3. Eibarko udalak adierazten du guztiz

3. El Ayuntamiento de Eibar se declara

sinetsita dagoela politikak indarkeria amaitzen lagun dezakeela eta lagundu behar duela, eta berresten du, indarkeria elkarrizketaren bidez amaitzeko baldintza egokiak baldin badaude, eta baldintzok indarkeria amaitzeko borondate argian eta uste horretara eraman dezaketen jarrera garbian oinarrituta badaude, Estatuko aginteen eta indarkeria uztea erabakitzen dutenen arteko elkarrizketa-prozesuak babesten dituztela, betiere auzi politikoak herri-borondatearen ordezkari legitimoen bitartez bakarrik konpondu behar direlako printzipio demokratiko utziezina errespetatuta.

Eibarren, 2011ko irailaren hogeitabian.

PSE-EE EAJ-PNV.”

convencido de que la política puede y debe contribuir al fin de la violencia, reafirmando que, si se producen las condiciones adecuadas para un final dialogado de la violencia, fundamentadas en una clara voluntad para poner fin a la misma y en actitudes inequívocas que puedan conducir a esa convicción, apoyamos procesos de dialogo entre los poderes competentes del Estado y quienes decidan abandonar la violencia, respetando en todo momento el principio democrático irrenunciable de que las cuestiones políticas deben resolverse únicamente a través de los representantes legítimos de la voluntad popular.

En Eibar, a Veintidós de Septiembre de 2011

PSE-EE EAJ-PNV.”